

PARTE HARTUZ: ARGITALPEN KOLEKTIBOA-2

Ekarpenak

Guztira 13 eskaera jaso dira, 35 sinatzaileekin. Sinatzaile horietatik 31 Parte Hartuzeko kide ofizialak dira, eta beste 4 ez, baina tesia Parte Hartuzeko kide batekin egiten ari dira.

Hasiera batean bi arazori egin behar izan zaio aurre: bi lan sinatzeko aukerari, eta kide ofiziala izan gabe parte hartu ahal izateari. Horren aurrean, editore lana egiten dutenek proposamen bat egin zieten koordinatzaileei, eta onartu egin zen. Hau erabakia:

a) Bi lan sinatzeari buruz. Ez da onartu (halako liburuetan ohikoa ez delako, eta beste kide batzuei berdin egiteko aukera ez zitzaielako eman).

b) Taldetik kanpoko sinatzaileei buruz. Onartu egin da, pertsona horiek tesia lantzen ari direlako gure taldeko kideekin. Horrek esan nahi du halako beste kasuren bat baldintza berdinetan agertuko balitz, aztertu egin beharko zela.

Bigarren fasea

Gogoratuko denez, arauetan esaten genuen bigarren fasean Ekarpenaren planteamendu osatua idatzi beharko zela, 500 bat hitzetan. Koordinatzaile-editoreek onartuz gero, ingelesez itzuliko dira, eta argitaletxeari bidaltzeko balioko dute. Hala ere, informazio osoagoaren zain gaude, eta laster zehaztapen gehiago emango dizkizuegu.

Gogoratu ere esaten genuela liburuak koherentzia eduki beharko zuela, eta hori lortzeko, koordinatzaile-editoreek liburuaren ardatz eta ildo bateratzaileak ezarri, eta ekarpenetako kideei iradokizunak proposatu ahal izango zizkietela. Hartara, laburpenak irakurrita, eta dagoen gai-aniztasun handia ikusita, honako ardatz posible batzuk nabarmendu dira: **Neoliberalismoa, Parte hartzea eta Sakontze demokratikoa**.

Beraz artikuluen egileei proposatzen zaie **artikulu bakoitzak aipaturiko ildo edo ardatz horietako bat (gutxienez)** izan dezala, eta kontzeptua ager dadila testuan landuta, zuzenean nahiz zeharka.

Ildo horretatik, liburuaren izenburuan jaso daitezke kontzeptu horiek, aldi berean Euskal Herritik abiatzen diren ikerketak direla zehaztuta. Honelako zerbait izan daiteke: “Neoliberalism, Participation and Democratic Deepening. A look from the Basque Country”. Noski, hau guztia abiapuntuko proposamena da, gerora eztabaidatzeko.

Orain entregatu behar den 500 hitzeko aurrerapen horretan argi geratu beharko litzateke zein ardatze(t)an kokatu nahi dugun geure ekarpena, testuan islatuta.

Artikuluen egitura

Beheko atalean ikusiko denez, eta oraindik argitaletxearen arau zehatzik jakin gabe, 6.000-8.000 hitzeko artikuluetan pentsatzen ari gara, oharrak eta erreferentzia bibliografikoak barne.

Egiturari dagokionez, nazioarteko aldizkarietan artikulua estandar batek daukan egitura proposatzen da: sarrera, marko teorikoa, metodologia, analisisa eta konklusioak edo diskusioa. Hasierako laburpena ez da beharrezkoa izango, sarreran egingo delako artikulua bakoitzaren aurkezpena.

Gogoratu ekarpen guztiek gure taldeko koordinatzaile-editoreen barne ebaluaketa arina pasatu beharko dutela, baina baita argitaletxeak ezartzen duen kanpo ebaluaketa ere.

Liburuaren egitura eta lanketa

Liburua Springer argitaletxean atera nahi da. Helburu horrekin Leire Escajedo UPV/EHUko irakaslearekin harremanetan jarri gara. Bera prest agertu da proiektuan laguntzeko, eta opatu diogu editore gisa aritzea (Igor Filibi, Ane Larrinaga eta Julen Zabalorekin batera).

Liburua argitaletxearentzat erakargarri egiteko, aholkatu digute kanpoko egile batzuek sinatutako artikulua ere sartzeari. Behean ikusten duzuen bezala, atal bakoitzeko kanpoko sinadura bat sartzeari proposatu liteke, eta besteren bat hasieran, agian. Kanpoko egile horiek ez daude erabakita. Denon artean pentsa genezake nor izan daitekeen pertsona erakargarria guk landuko dugun atalean idatz dezan. Liburuaren ildo orokorrenekin bat etorri beharko litzateke, noski, eta gutxienezko ezagutza eduki beharko genuke.

Aurreko guztia kontuan hartuta, halako egitura batean pentsatzen ari gara:

Neoliberalism, Participation and Democratic Deepening. A look from the Basque Country”.

0. Aurkezpena/Sarrera...

1. Neoliberalismoaz

- kanpoko baten ekarpena
- gure ekarpenak

2. Parte hartzeaz

- kanpoko baten ekarpena
- gure ekarpenak

3. Sakontze demokratikoaz

- kanpoko baten ekarpena
- gure ekarpenak